

**EUSKO JAURLARTZAKO HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO IDAZKARI NAGUSIAREN  
AGERRALDIA, BERAK ESKATUTA,  
EUSKO LEGEBILTZARREKO IRASKUNDE  
ETA HERRIZAINGO BATZORDEAREN AURREAN**

(Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroak 13)

**I. BALANTZE OROKORRA**

**I. 1 EAEko soziolinguistikazko egoeraren ikuspegi orokorra**

*I. 1.1 1981eko eta 1991ko errolden azterketa konparatiboa.*

EUSTATEk, Euskal Estatistika Erakundeak, argitaratutako 1981 eta 1991ko erroldetako hizkuntza gaitasunari buruzko datuen azterketa erkatuak (I. Eraskina) emaitza hau eskaini digu:

-Euskal Autonomi Elkartean (EAE) euskaldunen ehunekoak, edo, hobeto, elebidunena, hamar urtetan, %21,5etik %26,7ra pasatu da, hau da, %24,18ko igoera. Ia-euskaldunen koporuak %34,8ko gorakada izan du eta erdaldunena %15,93a jaitsi egin da.

-Tokiaren ikuspegitik, adierazgarriena da euskaldunen igoera lurralde guztietan gertatu dela, euskaldunen (+% 146,15) eta ia-euskaldunen (+% 103,15) ehunekoak gorakadarik handiena Araban izan badu ere.

-Adinaren ikuspegitik, esan liteke adin-talderik gazteenetan

(15-19, 10-14 eta 5-9 urte bitartekoen artean) gertatu direla ehunekoaren igoerarik handienak.

EAEn euskaldunen ehunekoaren gorakada +%63,97koa da 15 eta 19 urte bitartekoetan, +%97,42koa 10 eta 14 urte bitartekoetan eta +%100,5ekoa 5 eta 9 urte bitartekoetan. Euskaldun kopuruaren igoera horrekin batera ia-euskaldun edo elebidun hartzaileena ere gertatzen dela kontutan hartuta, erdaldunen kopurua nabarmen jaitsi dela ikusten da: -%51,33 behera 15 eta 19 urte bitartekoetan, -%55,05 jaitsi 10 eta 14 urte bitartekoetan eta -%51,09 berriz 5 eta 9 urte bitartekoetan. Joera horiek EAEn ez ezik lurralde historiko guztietan gertatu dira eta, batez ere, Araban.

#### I. 1.2 EAeko soziolinguistikazko inkestaren ondorioak.

Banatu dizuegun azterlanaren zati bakoitzaren ondorio garrantzitsuenen laburpena azalduko dugu ondoren:

##### a) Hizkuntza gaitasuna

Lehenik, euskal elebakarrak ia erabat galdu direla esan daiteke. Erdal elebakarren gero eta gutxiagotzea ere azpimarragarria da. Bi gertakari horien alboan, elebidun funtzionalen igoera geldi baina etengabea eta elebidun hartzaileen gorakada nabarmena ikus daitezke. Elebidun funtzionalen artean hiru talde berezi daitezke, euskarazko eta gaztelaniazko erraztasunaren arabera: %39ak errazago hitz egiten du euskaraz, %26ak erraztasun berdina du bi hizkuntzetan eta %35ak errazago egiten du gaztelaniaz.

Hizkuntzaren transmisioari dagokionez, euskara lehen hizkuntza (L1, ama hizkuntza) zutenen galera geldiarazi dela esan daiteke eta, bestalde, indartzen ari dela gertakari berri-berri bat, hots, lehen hizkuntza bezala euskara eta gaztelania, bi-biak, transmititzea.

Geografiaren ikuspegitik, aspaldiko urteetan sartu gabeko edo modu sinbolikoan sartutako herri eta guneeetan indartu da euskara.

Elebitasun motaren eta jatorri etnokulturalaren arteko lotura estua ageri da, gainera: alde batetik, elebidun funtzional ia denak bertakoak dira, nahiz eta bertakoen ia erdia erdal elebakarrak diren, eta, bestetik, ia etorkin guztiak erdaldun elebakarrak dira.

b) *Euskararen erabilera.*

Euskaraz gehien egiten den gunea familia da. Familiatik urrundu-ahala (lagunartean, lanean, esparru formalagoetan eta bestelakoetan), euskararen erabilero gero eta apalagoa da.

Euskararen erabilera zerk erabakitzen duen eta, esan beharra dago ez datzala, sarritan esan den bezala, hizkuntzarekiko leialtasunean edo leialtasunik ezean, hots, hiztunaren beraren nahian, baizik eta hauek direla arrazoiak:

-Gizarte egitura: aztertutako gunen bakoitzeko hiztunen arteko euskaldunen heina eta, era berean, euskaldun horiek bizi diren gunen soziolinguistikoa; bigarren honek eragin handia du aurrekoan.

-Hiztunak berak nola menderatzen duen euskara, hau da, adierazi nahi duena zein hizkuntzatan adierazten duen errezago, euskaraz ala gaztelaniaz.

Bigarren mailako eragile aipa daitezke euskararekiko interesa eta sustatzeari begirako jarrera eta baita adina eta euskarazko komunikabideen erabilera ere.

c) *Euskararekiko jarrera, interesa eta oharpena.*

Biztanle gehienek iritzi gaur egun orain hamar urte baino «zertxobait gehiago» edo «askoz gehiago» egiten da euskaraz. Batipat euskaldun urriagoko gunen soziolinguistikoetako biztanleek igerrri diote euskararen erabilera indartzen ari dela.

Gehienek ustez euskaraz gero eta gehiago egingo da.

Bestalde, berezi egin behar dira euskararekiko interesa eta sustatzeari begirako jarrera. Interesari doakionez bi talde ditugu biztanlegoan (%44 interesdun eta %40 interesgabe); jarrerari

begirakoak, berriz hiru dira: aldeko jarrerakoak, %49; ez alde eta ez kontrakoak, %34 eta kontra zein erabat kontrakoak, %16.

Geografiaren ikuspegitik aldeak nabarmenak dira: Lurralde Historiko guztietan dira nagusi euskararen sustapenaren alde daudenak (%57 Gipuzkoan, %47 Bizkaian eta %41 Araban). Aurkakoak, berriz, gehiago dira Araban (%24) Bizkaian (%16) nahiz Gipuzkoan (%12) baino.

Hala ere, hiztunen hizkuntza gaitasunean dira nabarien aldeak: elebidunek, bai erabiltzaileek eta bai hartzaileek, euskararen sustapenarekiko interes bizia eta aldeko jarrera azaltzen dute; baina gaztelania hutseko elebakarrak, gehienak ez daude ez alde eta ez aurka (%43), aldekoak %35 dira eta kontrakoak %23.

d) *Azken urteotako bizkuntza politikari buruzko iritzia.*

Biztanlegoaren gehiengoaren (%89) iritziz, Administrazio Publikoak euskararen erabilera bultzatu egin behar du. %39ak administrazioaren azken urteotako jokaera behar bezalakoa izan dela dio. Baina ez da ahaztu behar %30ak jokaera hori nola-halakotzat jotzen duela eta %23ak behar ez bezalakotzat.

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaz kritikariek azaldu dutenez, administrazioa nola-hala edo behar ez bezala aritu dela dioten arteko %27ak gauzak gaizki egin direla uste du eta nagusi dira (%44) gutxiegi egin dela diotenak.

## I. 2. Elebitasuna hezkuntza sisteman.

### I. 2.1. Irakaskuntzako ereduaren bilakaera.

1982-83 ikasturtean (2) Eskolaurrean eta OHon hizkuntza ereduaren banaketa honako hau zen:

A + X ereduak:	%75	A + X ereduak:	%75
B eredua:	%10	B+ D ereduak:	%25
D eredua:	%15		

Oraingo egoera, 92-93 ikasturteko (3) aurrematrikulako datuetatik ateratzen dena, beste hau da:

A + X ereduak:	%44	A + X ereduak:	%44
B ereduak:	%28	B + D ereduak:	%56
D ereduak:	%28		

Bilakaera horren (ikus II. Eraskina) ondorioak, jarraian datorren grafikoan ikus daitekeen bezala, hauek dira:

- A + X ereduak 31 puntu galdu dituzte. Etengabeko beherakada da, urtean 3 puntu baino gehiagokoa.

- B ereduak 18 puntu gora egin du, honexena da hazkunderik handiena (%180ko igoera).

- D ereduak gutxixeago baina 13 puntu irabazi ditu (%86,66ko igoera).

Joera berbera dugu hiru lurraldeetan: abiadura da aldatzen dena, hau da, herrialde bakoitzak orain hamar urte zeukan egoera.


- Gipuzkoak zeukan egoera, esate baterako, guztiz bestelakoa zen besteekin alderatuz gero, batipat ikastola gehiago zegoelako. Horrexek azaltzen du A ereduak ia galtzeko zorian egotea lurralde horretan eta D ereduak B ereduaren gainetik ere nagusitzeko bidean izatea.

- Bizkaian hiru ereduak nahikoa orekatuta daude, D ereduak B ereduaren gainetik, baina A ereduak oraindik garrantzitsu dela.

- Araban B ereduak sendotzen ari da, A ereduak oso zabaldua dago eta pisu txikiagoa dauka D ereduak.

### I. 2.2. *Hezkuntza elebidunari buruz Euskal Herrian egindako ikerlanen ondorioak.*

Hezkuntza elebidunaren zenbait alderi buruz hogeita hamarren bat ikerlan egin dira Euskal Herrian, gehienak 1980az geroztik. Doktoratu tesiak eta Eusko Jaurlaritzak edo bestelako



erakundeek egindako lanak izan dira ia denak eta 20.000 ikasle inguru aztertu dira.

Ikerlan kopuruari bagagozkio, arlo bakoitzari eman zaion garrantziaren arabera banatu dira lanak, hurrenkera honetan: ikasleek eskolan lortzen duten euskara maila, gaztelaniazko maila, ikasketen aprobetxamendua eta beste hizkuntzetan ateratako kalifikazioak. Euskal Herrian egindako ikerketa hauen ondorioak eta atzerrian egin diren hainbat eta hainbatena era bereko emaitzak dituzte.

a) *Euskara maila.*

Hiru ondorio orokor nabari araziko ditugu:

1. Zenbat eta sendoagoa izan ikasgelako hizkuntza eredia,

orduan eta hobeak dira euskarazko emaitzak. D ereduko ikasleek ateratzen dituzte notarik onenak euskaran, ondoren B eredukoek eta azkenik A-koek.

2. Ama hizkuntzak eragin handia du ikasleek lortzen duten euskara mailan.

3. Euskarazko emaitzetan eragina dute ondoko hauek ere:

-euskararekiko jarrerak eta motibazioak.

-ikaslearen gizarte eta ekonomi egoerak.

-eskola sareak (ikastoletako euskarazko kalifikazioak ikastetxe pribatuetakoak baino hobeak dira eta pribatuetakoak publikoetakoak baino ere bai).

-ikaslearen adimen mailak (zenbat eta argiago, orduan eta emaitze hobeak euskaran).

-metodologiak (ekinezkoa hobe beti ere).

b) *Gaztelania maila.*

Hizkuntza eredu guztietan antzekoak dira gaztelaniazko kalifikazioak, ez dute alde handirik. Horrek esan nahi du hezkuntza elebiduna ez dela, izan ere, gaztelaniaren murrizpide.

Euskarazko eta gaztelaniazko emaitzetatik ateratzen den ondorioa zera da, A ereduko ikasleen kalifikazioak direla EAEko bi hizkuntza ofizialetako ezagutza mailari begira orekarik eza nabarienekoak. D ereduko ikasleak dira oreka handienekoak. Eta B eredukoak beste bien bitartean daude.

c) *Ikasketen aprobetxamendua.*

Ez da matematikan edo gizarte zientzietan, adibidez, alde esangarririk azaltzen hiru hizkuntza ereduaren artean, erabilitako hizkuntzari dagokionik.

d) *Atzerri hizkuntzaren ikasketa.*

Nazioarteko ikerlan ugari egiaztatua dago, eta geure artean

ere asko eta askoren iritzia da, elebitasuna oso lagungarria dela hirugarren hizkuntza ikasterakoan.

Ikasleak euskaraz jakitea kaltegarri ez, baizik eta, alderantziz, hirugarren hizkuntzaren garapenarentzako mesedegarri bide da nonbait alderditatik. Hori horrela, elebidunek elebakarrek baino emaitza hobeak lortzen dituzte beste hizkuntzetan. Gai honi buruz gure ingurunean egindako ikerketek horrela baieztatu dute.

### 1.2.3. *A ereduaren emaitzen ebaluazioa.*

#### a) *Hizkuntza helburuak.*

Euskal gizarteak demokraziaren arauz finkatu ditu, bai Autonomi Estatutoaren bidez eta baita Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen bitartez, herritar guztientzako lortu beharreko hizkuntza helburuak, funtsean hezkuntza sistemaren bitartez lortu ere.

Horrela, Autonomi Estatutoaren 6. ataleko 2. azpiatalak honako hau dio:

«Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta *beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baltaraziko dituzte*».

Estatutoaren aginduaren garapen gisa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen 17. atalak honela dio:

«Jaurdaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan *bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko* ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapideian eta Arduralaritzako ihardun eta agiritan euskara agizko adierazpide eginez».



b) *Hezkuntza sistemaren baitako hizkuntza helburuen lorpenari buruzko balioztatpena.*

1979an Estatuko Gobernuak dekretu bi eman zituen, unibertsitatez kanpoko euskal hezkuntza sistema osoan euskararen irakaskuntza orokorra ezarriz, euskara astean laupabost orduko irakasgai bezala jarritz, eta, baita, irakaskuntza sare guzietako ikastetxeetan euskarazko programak garatzeko aginduz.

1983an Eusko Jaurlaritzak Elebitasun Dekretu delakoa eman zuen, gaur egun ere indarrean dauden hiru hizkuntza ereduak finkatuz.

Nahikoa urte igaro da, bada, ereduon emaitzak zehaztasun askirekin ebaluatu ahal izateko. Urte hauen joanean Euskal Herrian egindako hamar ikerlanek eredu bakoitzean lortutako hizkuntzazko emaitza erkatuen berri eskaintzen dute. Hamar ikerlanok erabilitako laginek 10.559 ikasle hartzen dute guztira.

Badugu, beraz, ondorio orokor zenbait ateratzeko besteko informaziorik. Garrantzizkoen iruditzen zaizkidan bi ondorio aipatuko dizuet:

-Hiru hizkuntza ereduotako ikasleek gaztelaniazko antzeko maila iristen dute unibertsitaterainoko irakaskuntza amaitzerakoan;

-Euskarari dagokionez, alde nabarmena dago ereduotako ikasleek unibertsitaterainoko irakaskuntza burutzean lortutako mailen artean. Maila egokia dute D eredukoek, apalagoa B eredukoek, baina erabat eskasa da A eredukoek dutena.

Urteen buruan bildutako eskarmentuak ez du A ereduaren emaitzen hobekuntzarik ekarri. Garaia iritsi dela uste dugu arazoari berriz heltzeko, hizkuntza eredu hori aukeratu duten ikasle eta gurasoen nahiari errespetu osoa aitortuz, baina demokraziaren arauz, lehen esan dudan bezala, Estatutoan eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legean gure

buruari ezarri dizkiogun helburuak ahaztu gabe. Berriz heldu behar zaiola diot, zeren eta bere garaian Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin elkarlanean hartu baitzuen A eredia hobetzeko jendaurreko konpromezua, orain arte bete ez dena. Ez dugu A eredia kentzea proposatzen, sortu zeneko hizkuntza helburuei egokitzea baizik.

c) *A ereduaren emaitzen zergatiaren azterketa.*

Gaia agortu nahi gabe, eskuartean ditugun ikerlanen arabera A ereduan gertatzen ari dena azaltzen duten alderdirik funtsezkoenak azpimarratu nahi nituzke. Bi aipatuko dizuet:

-Ikasle bakoitzak euskararekin ukipenean ematen duen ordu kopurua;

-Ukipen hori nolakoa den.

Gauza ezaguna da A ereduko ikasleek astean 4 edo 5 orduko euskara eskola dutela. Baten batek hizkuntza behar bezala ikasteko nahikoa ordu dela pentsa dezake. Baina errealitateak adierazten du ikasleak oso aukera gutxi duela hizkuntza era komunikatiboan erabiliz ikasgelan partaide eginkor izateko. Esku artean ditugun datuek erakusten dute A ereduko ikasle bakoitza ez dela iristen, inolaz ere, urtean zehar eskola giroan nahiz eskolaz kanpo duen denboraren %1a euskaraz erabiltzera.

Bestalde, adituek ahobatez baieztatzen dute hizkuntzak testuinguru esanguratsuetan erabiliz ikasten direla, komunikazioa (informazio berria elkarri ematerakoan) eta elkarreragina gertatzen direnean. Horrek, euskara irakasteko metodologia nagusiki horretara egokitzea esan nahi du eta euskara beste ikasketa edukiak irakasteko irakaskuntza hizkuntza bezala ere erabiltzea. Euskararen irakaskuntza ezin daiteke hizkuntza edukien ikasketan gelditu. Hizkuntza erabili gabe ez dago benetan ikasterik.

d) *A ereduaren hobetzeko proposamena.*

A ereduaren hobekuntza bi lerrotan landu beharko litzateke:

1. Euskararen irakaskuntzaren hobekuntza, hau da, besteak beste:

- metodologia esan dugun ildotik hobetzea, horretarako irakasleagoa presta-berrituz.

- egindako lanaren jarraipena ziurtatzea, euskarazko irakasle plantilak egonkorrago bihurtuz eta urterik urte programazio progresibo bera jarraituz.

- irakasle/ikasle ratio egokia.

- irakasmaterial eta orientabide didaktiko nahikoa.

2. Euskara ikasgaiak kanpo erabiltzea, curriculum-aren zati bat euskaraz irakatsiz eta eskola giroan euskararen presentzia nahikoa ziurtatuz, hots, ikasgelaz kanpoko ekintzetan.

**1.3. Elebitasuna administrazioan.**

Bukatzeaz dago Euskal Herriko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzari buruzko txostena. Lehenengo azterketaren arabera, plangintzaren helburuak betetzen ari direla esan daiteke nahiz eta garaizegi den edozein datu emateko. Hauek dira arrazoiak:

- Eskuartearen ditugun datu gehienak 1991koak dira. Txosten hau egiterakoan udal nagusien informazioa jaso da (Donostia, Bilbao,...) baina ez dugu aztertzeke astirik izan.

- Ezinezkoa da lanpostuen aldaketen jarraipena sistematikoki egitea, udal bakoitzak erizpide ezberdinen arabera egiten baititu aldaketa hauek; zenbaitetan, gainera, ez zaio jaramonik egiten Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak, Administrazioaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 224/89 Dekretuak, e.a.ek esandakoari. Eragozpen hauek eragina dute aztertutako datuen kalitatean.

-Araudiak ez du aurrirakusten normalizazio plangintzaren kontrolerako lagungarri litzatekeen akreditazio erroldarik. Baditugu akreditazioei buruzko deialdi desberdinen datuak baina herri administrazioetan etengabe egiten diren lanpostuen deialdien akreditazioak ez dira zehatz-mehatz kontrolatzen, kasu askotan, akreditazioa aurrerantzean funtzionariogaiak (edo behin betiko langileak) izan dezakeen (edo ez dezakeen) lan egoeraren baitan dagoelako.

- Funtzionarioen euskalduntzeari buruzko datuak HABEko 1990-91 eta 1991-92koak dira.

Ikusten denez plana martxan dagoela esan daiteke, eta kopuruak itxaropenerako bidea zabaltzen duten arren, ez dago oraindik balantze orokorrik egiterik oso denbora laburra joan delako. Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarriko Legea duela hamar urte onartu zuen Legebiltzar honek. Baina denok dakizkigun arrazoiak tarteko, Legebiltzar honek ez zituen *Euskal Herriko Autonomi Elkarte*ko Herri Administrazioetan *Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintzaren Oinarriko Irizpideak* onartu 1989ko maiatzaren 17ra arte. Komeni da, beraz, hori kontuan hartzea edozein balorazio egiterakoan.

Horrenbestez, bere mamikuntzan originaltasun maila handia behar izan duen plan berria da. Hasieratik bertatik, normalizaziorako bide arrazional, objetibo eta progresiboa hautatu zen, horretan berau bete behar zuten administrazio guztiek parte hartu zutelarik. Honako plan honek etengabe egokitu beharra eskatzen du: Kanadan badira 20 urte aplikatzen ari direla eta dagoeneko eginak dituzte bost aldaketa. Hizkuntza eskakizunak malgutzearen aldekoak gara hori beharko balitz.

Beharrezkotzat jotzen dugu era berean administrazioko arduradunek langileei erraztasunak ematea legeak eskatzen diena bete ahal izan dezaten.

Hemendik bertatik eskatzen diet politikagintzan buru direnei, funtzionarioei eta herritarrei norik bere arduraz behar diren

ahaleginak egin dizatela herri honen egoera soziolinguistikoari erantzungo dion administrazio eraginkorra lortzeko.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroaren 13an  
M. Karmen Garmendia Lasa  
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia



**ESTUDIO  
FOTOGRAFICO**

**ARGAZKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

\*\*\*\*\*



**IZARBEL** S.L. VIDEO PROFESIONAL

---

San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 <b>48340 Amorebieta</b>	Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 <b>48220 Matiena (Abadiano)</b>
---	--

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 668

## I. ERASKINA

## Hizkuntza gaitasuna

	1981 (zbk.)	1981 (%)	1986 (zbk.)	1986 (%)	1986ko portzentai bizkondea 1981 rekiko	1991 (zbk.)	1991 (%)	1991ko portzentai bizkondea 1981 rekiko
<b>ARABA</b>								
Euskaldunak	9.693	3,9	17.424	6,7	71,79	25.300	9,6	146,15
Ia-euskaldunak	23.797	9,5	43.997	16,8	76,84	50.900	19,3	103,15
Erdaldunak	216.302	86,6	199.807	76,5	-12,81	188.100	71,2	-17,78
Guztira	249.792		261.228		+11.436 *	264.300		+14.508 *
<b>BIZKAIA</b>								
Euskaldunak	171.684	14,9	197.704	17,1	14,76	212.600	18,8	26,17
Ia-euskaldunak	154.722	13,4	205.696	17,8	32,83	230.200	20,4	52,23
Erdaldunak	829.372	71,8	746.584	64,7	-9,88	686.200	60,8	-15,32
Guztira	1.155.778		1.153.989		-1.789 *	1.129.100		-26.678 *
<b>GIPUZKOA</b>								
Euskaldunak	266.779	39,5	294.691	43,7	10,63	310.100	47,1	19,24
Ia-euskaldunak	122.366	18,1	114.423	16,9	-6,57	118.600	18	-0,55
Erdaldunak	286.746	42,4	265.664	39,4	-7,07	230.300	34,9	-17,68
Guztira	675.891		674.779		-1.112 *	659.000		-16.891 *
<b>E.A.E.</b>								
Euskaldunak	448.156	21,5	509.819	24,4	13,48	548.100	26,7	24,18
Ia-euskaldunak	300.885	14,5	364.116	17,4	20	399.800	19,5	34,38
Erdaldunak	1.332.420	64	1.212.055	58	-9,37	1.104.500	53,8	-15,93
Guztira	2.081.461		2.089.995		+8.534 *	2.052.300		-29.161 *

Iturria: EUSTAT, 1981 eta 1991ko zentsuak.  
1986ko errolda.

\* Bizkondearen hazkundearen kopuru absolutuak.

## E.A.E.ko gazteen hizkuntza gaitasuna

	Adin taldeak		
	15-19	10-14	5-9
Euskaldunak 1981 (%)	18,6	19,4	20
Euskaldunak 1991 (%)	30,5	38,3	40,1
Portzentai hazkundera	63,97	97,42	100,5
Ia-euskaldunak 1981 (%)	21,6	27,2	20,9
Ia-euskaldunak 1991 (%)	40,4	37,8	30,9
Portzentai hazkundera	87,03	38,97	47,84
Erdaldunak 1981 (%)	59,8	53,4	59,1
Erdaldunak 1991 (%)	29,1	24	28,9
Portzentai hazkundera	-51,33	-55,05	-51,09

Iturria: EUSTAT. 1981 eta 1991ko zentsuak.

**II. ERASKINA**  
**Euskal Autonomi Elkarteko irakasteredu elebidunen bilakaera, EA + OHoko ikastetxe guztietan**

		IRAKASTERTEA										
		1982-83	83-84	84-85	85-86	86-87	87-88	88-89	89-90	90-91	91-92	92-93
Ikasleak guztira		396.169	392.882	386.098	376.224	364.292	350.525	332.297	313.042	293.839	275.172	262.567
A+X EREDUAK	ikasleak	296.148	286.026	270.848	253.130	232.223	212.230	189.845	167.914	147.804	128.044	114.727
	%	75	73	70	67	64	61	57	54	50	47	44
B EREDUA	ikasleak	41.270	39.548	43.872	50.834	57.174	63.378	67.928	71.373	72.433	72.929	74.002
	%	10	10	11	14	16	18	21	23	25	26	28
D EREDUAK	ikasleak	58.751	67.308	71.378	72.260	74.895	74.917	74.524	73.755	73.602	73.599	72.838
	%	15	17	19	19	20	21	22	23	25	27	28

Iturria: EUSTAT.  
 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.



## Euskal Autonomi Elkarteko irakasteredu elebidunen bilakaera, EAko ikastetxe guztietan

		IKASTURTEA										
		1982-83	83-84	84-85	85-86	86-87	87-88	88-89	89-90	90-91	91-92 <sup>a</sup>	92-93 <sup>a</sup>
Ikasleak guztira		83.046	79.661	76.656	73.841	70.970	68.735	64.997	61.705	58.671	56.035	54.570
A+X EREDUAK	ikasleak	44.784	40.680	36.971	33.620	28.757	25.641	22.162	19.882	17.763	15.539	14.493
	%	54	51	48	46	40	37	34	32	30	28	27
B EREDUA	ikasleak	19.069	18.059	18.109	20.012	21.852	23.207	23.125	22.073	20.885	19.860	19.002
	%	23	23	24	27	31	34	36	36	36	35	35
D EREDUA	ikasleak	19.193	20.922	21.576	20.209	20.361	19.887	19.710	19.750	20.023	20.636	21.075
	%	23	26	28	27	29	29	30	32	34	37	38

Iturria: ECSTAT

<sup>a</sup> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

